



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 57. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Ekaina



GIPUZKOA



### NABARMENDU BEHARREKOA

#### > Kulturak Europa 2020 Estrategiari egin diezaiokeen ekarpena

Batasuneko Kontseiluak kulturak Europa 2020 Estrategiaren aplikazioari egin diezaiokeen ekarpenari buruzko hainbat ondorio bildu ditu. Horrela, Estrategiaren jarraibide integratuek eta horien ekimen adierazgarriek proposatutako neurriei ekarpen garrantzitsua eta dimentsio anitzekoa egin diezaietkeela adierazten du. Hain zuzen ere, jarraibide eta ekimen horien helburua EB ekonomia adimendun, jasangarri eta integratzaile bilakatzea da.

- Kulturaren ekarpena hazkunde adimendunari  
Kultur- eta sormen-industriak (CCI, ingelesez) enplegua sustatzeko iturri garrantzitsua dira. Azken hamarkadan, industria horietan guztizko enplegua hirukoiztu egin da, Batasun osoko ekonomian enpleguak izandako igoerarekin alderatuta. Halaber, ekonomia osoarentzat sorkuntza eta berrikuntza ez teknologikoaren motorra dira, eta kalitate handiko zerbitzu eta ondasun lehiakorak sortzen dituzte. Azkenik, hezkuntzarekin dituen lotura bereizleen bidez, kulturak modu eraginkorren ekarpena egin diezaietke eskulan trebe eta moldakor baten prestakuntzari, eta horrela, jardun ekonomikoaren osagarri izango litzateke.
- Kulturaren ekarpena hazkunde jasangarriari  
Kulturak garapen jasangarriari ekarpena egin diezaietke, mugikortasun ekologikoa sustatuz eta puntako teknologia jasangarriak erabiliz. Horien barne, digitalizazioa egongo litzateke; kultur edukiak linean eskuratzeko aukera ematen du. Artistek eta kulturaren sektoreak bere osotasunean funtsezko zeregina izan dezakete gizarteak ingurumenari begira dituen jarrerak aldatzeko orduan.
- Kulturaren ekarpena hazkunde integratzaileari  
Kulturak ekarpena egin diezaietke hazkunde integratzaileari, kultura arteko elkarriketa sustatuz eta kultur aniztasuna guztiz errespetatuz. Kultur jardueren eta programen bidez gizarte-kohesioa eta komunitatearen garapena indartu daitezke, eta era berean, pertsonen edo komunitate osoari bizitza sozial, kultural eta ekonomikoan parte hartzeko aukera ematen zaie.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2011:175:0001:0004:ES:PDF>



### > Donostia, Europako kultura hiriburua

Ekainaren 28an hautaketa batzorde independente batek Donostia 2016. urtean Europako Kultura Hiriburua izan dadin proposatu zuen. Poloniako Wrocklaw hiriarekin batera izendatuko dute. Batasuneko Ministro Kontseiluak 2012ko maiatzean egingo du izendapen formala.

Hiriek dimentsio europarra duen kultur programa prestatu behar dute, eta hirian eta bere inguruan eta atzerrian bizi diren herritarren parte-hartzea sustatu behar dute. Dimentsio europarra hautatutako gaietan eta programaren jarduerak antolatzeko moduan islatzen da (Batasuneko herrialde desberdinen kultur operadoreen arteko lankidetzaz bultzatzen da). Programak, halaber, eragin iraunkorra izan behar du eta epe luzera hiriaren kultura eta gizarte garapenean lagundu behar du.

Europako kultura hiriburuak batzorde independente batek hautatzen ditu: lehenik eta behin zerrenda da bat osatzen da, aurretik hautaketa fasea egin ondoren; bederatzita hilabete geroago bukaerako hautaketa egiten da. Hautatutako bi hiriak (herrialde bakoitzeko bat) Europar Batasuneko Ministro Kontseiluak izendatzen ditu ofizialki.

Aurten Turku (Finlandia) eta Tallinn (Estonia) dira Europako Kultura Hiriburuak; ondoren, 2012an, Guimarães (Portugal) eta Maribor (Eslovenia) izango dira; 2013an, Marseilla (Frantzia) eta Kosice (Eslovakia); 2014an, Umea (Suedia) eta Riga (Letonia); eta 2015ean, Mons (Belgika) eta Pilsen (Txekia).

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/culture/news/news3304\\_en.htm](http://ec.europa.eu/culture/news/news3304_en.htm)

[http://www.mcu.es/novedades/2011/novedades\\_Capital\\_Europea\\_Cultura\\_2016.html](http://www.mcu.es/novedades/2011/novedades_Capital_Europea_Cultura_2016.html)

[http://ec.europa.eu/culture/our-programmes-and-actions/doc413\\_en.htm](http://ec.europa.eu/culture/our-programmes-and-actions/doc413_en.htm)



### > Europako Batzordearen 2014-2020 hainbat urtetarako finantza-esparrua

Ekainaren 29an aurkeztutako proposamenak Europako aurrekontua produktu nazional gordin europarraren egungo % 1,05 mailan egonkortzea proposatzen du; 2014-2020 eperako 1.025 mila milioi euroko gutzitako kopurua adierazten du horrek, 2007-2013 epeari dagokiona baino % 5 gehiago.

Diru-sarrerei dagokienez, Batzordeak egungo sistema herrialde guztietan orokortzea eta herrialde bakoitzaren oparotasunarekin indexatzea proposatzen du; halaber, finantza-transakzioei tasa bat ezartzea, deribatuen trukeen kasuan % 0,01eko tasa eta zor subiranoaren trukeen gainean % 0,1ekoa; eta Europako balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) ezartzea.

Gastuei dagokienean, Nekazaritza Politika Bateratuaren gastuak izoztea proposatzen du Batzordeak, langileak % 5 murriztea eta kanpo eta barne harremanetarako funtsak handitzea.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/commission\\_2010-2014/lewandowski/library/documents/pressConf\\_MFF\\_presentation\\_20110629\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/commission_2010-2014/lewandowski/library/documents/pressConf_MFF_presentation_20110629_en.pdf)

[http://www.europarl.europa.eu/meetdocs/2009\\_2014/documents/com/com\\_com\(2011\)0500\\_/com\\_com\(2011\)0500\\_es.pdf](http://www.europarl.europa.eu/meetdocs/2009_2014/documents/com/com_com(2011)0500_/com_com(2011)0500_es.pdf)

<http://ec.europa.eu/budget/reform/>



## KOMUNITATEKO POLITIKAK

### > Energia eraginkortasun handiagoa lortzeko neurriak

Europako Batzordeak Zuzentarau proposamen legegilea aurkeztu du energia eraginkortasunaren inguruan, eta horren arabera, Energia Eraginkortasun Planean 2020. urterako berotegi-efektuko gas-emisioak % 20 murrizteko, energia-iturri berriztagarrien % 20 eskuratzeko eta energia-kontsumoa % 20 murrizteko helburuarekin proposatutako oinarritzko neurrietako asko lotesle bilakatzen ditu.

Energia eraginkortasun handiagoaren aldeko hainbat neurri ere txertatzen ditu, eta estatu kideek energia-katearen atal guztietan -energiaren eraldaketatik eta banaketatik hasi eta bukaerako kontsumora arte-energiaren erabilera eraginkorragoa egin dezaten ahaleginak areagotzera bideratuta daude.

Azaletik, honako hauek dira neurriak:

- Estatu kide guztietan energia aurrezteko sistemak sortzeko betebeharrak juridikoa: energia-banatzailleek edo energia saltzen duten enpresa txikizkariak urtero energia salmenten % 1,5 aurrezteko betebeharra izango dute.
- Sektore publikoa eredu izan behar da: erakunde publikoek merkatuak energiaren ikuspuntutik eraginkorrak diren produktuak har ditzan bultzatuko dute, energiari dagokionez eraginkorrak diren eraikinak, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko betebeharrak juridikoaren bidez; halaber, kontsumitzen duten energia murriztu beharko dute.
- Energiaren aurrezpena kontsumitzaileentzat: informazioa denbora errealean eta iraganeko energia-kontsumoa erraz eta dohainik eskuratzeko, banakako kontagailu zehatzagoen bidez; horrela, kontsumitzaileek euren energia-kontsumoa hobeto kudeatuko dute. Fakturazioa benetako kontsumoan oinarritu behar da eta kontagailuaren datuak zuzen islatu behar ditu.
- Industria: pizgarriak enpresa txiki eta ertainek energiaren ikuskaritzak egin eta jardunbide hobeak hedatu dituzten, enpresa handiek euren energia-kontsumoaren ikuskaritzak egiten dituzten bitartean.
- Energiaren produkzioaren eraginkortasuna: energiaren produkzio-instalazio berrien eraginkortasun-mailen kontrola eta berotzeko eta hozteko plan nazionalak ezartzea.
- Energiaren transmisioa eta banaketa: energiaren eraginkortasun irizpideak kontuan hartzea energia arautzeko nazio-agintaritzen erabakietan, bereziki sareko tarifak onartzeko orduan.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/energy/efficiency/eed/doc/2011\\_directive/country/20110622\\_energy\\_efficiency\\_directive\\_es\\_slides\\_presentation.pdf](http://ec.europa.eu/energy/efficiency/eed/doc/2011_directive/country/20110622_energy_efficiency_directive_es_slides_presentation.pdf)

[http://ec.europa.eu/energy/efficiency/eed/eed\\_en.htm](http://ec.europa.eu/energy/efficiency/eed/eed_en.htm)

**Energiaren eraginkortasunaren zuzendaritza:**

[http://ec.europa.eu/energy/efficiency/eed/doc/2011\\_directive/com\\_2011\\_0370\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/energy/efficiency/eed/doc/2011_directive/com_2011_0370_en.pdf)



### > Arau europarren ikuspegi estrategikoa

Batzordearen Jakinarazpenaren aburuz, hobetzeko xedearekin aurrera egin eta hemendik 2020. urtera ekonomia europarraren hazkunde jasangarria bizkortzeko, normalizazioa estrategikoa da.

Arauk borondatezko izaera duten dokumentuak dira, eta horietan, egungo edo etorkizuneko produktuek bete ditzaketen baldintza teknikoak edo kalitateari lotutakoak, produkzio-prozesuak, zerbitzuak edo metodoak definitzen dira.

Normalizazioaren hazkundearen irabazi ekonomikoak BPGaren urteroko hazkunderan portzentajezko 0,3 eta 1 puntu dela balioetsi da.

Zuzentarau proposamenak jasotzen duenez, normalizazio europarrak funtsezko zeregina izango du esparru desberdinetan, eta esparru horiek egungoak baino askoz ere gehiago izango dira. Besteak beste, honako hauek dira: lehiakortasun europarrari babesa eman, kontsumitzaileen babesa, helduen eta minusbaliotasuna duten pertsonen irisgarritasuna hobetu, klima-aldaketaren aurkako borroka eta bitartekoen erabileraren gaineko eraginkortasun arazoa. Esparru guztietan behar aldakorrei azkar erantzuteko, normalizazio sistema europarra osoa, barneratzailea, eraginkorra eta eguneratua izan beharko da.

Eta arau europarra lantzeak berebiziko garrantzia du produktu, zerbitzu eta merkaturatu daitezkeen teknologia berrien (esaterako, ibilgailu elektrikoak, segurtasuna, energia eraginkortasuna edo sare adimendunak) garapenean Europa motorra den esparruetan, nazioarteko arau gisa aldarrikatzeko xedearekin.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0311:FIN:ES:PDF>



### > VII. I+G alorreko Esparru-programa: konferentzia Donostian

Ekainaren 20 eta 21ean Europar Batasunaren VII. I+G alorreko Esparru-programaren Konferentzia egin zen Donostian.

Konferentziaren helburuen artean, alde batetik, Europan ikerketak eta berrikuntzak duten etorkizunari eta enpresa eta erakunde espainiarrek erronka horiei eman beharreko erantzun egokiei buruz eztabaidatzea zen.

Eta bestetik, VII. Esparru-programaren baitan egin beharreko deialdiei buruzko informazioa ematea eta horiek prestatzea ( 2012-2013 aurrekontuak).

*Informazio gehiago:*

<http://www.cdti.es/index.asp?TR=C&IDR=1481>

<http://www.cdti.es/index.asp?TR=C&IDR=1546>

### > Polonia Europar Batasuneko lehendakaritzan

Uztailaren 1az geroztik Poloniak Europar Batasuneko sei hileko lehendakaritza hartu du. Garapen azkarragoari bultzada emateko Poloniako lehendakaritzak egindako programak hiru lehentasun nagusi ditu: integrazio europarra hazkunde-iturri gisa, Europa seguruagoa eta irekieraren onura jasoko duen Europa.

*Informazio gehiago:*

<http://pl2011.eu/en>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Kohesio-politikaren segimendu eta ebaluazio sistema berri baterantz

Eskualdeko Politika Zuzendaritza Nagusiak ohar metodologikoa kaleratu du emaitza eta helburuen adierazleen inguruan, gaur egun kohesio-politikaren gainean egiten ari den hausnarketa-prozesuaren baitan.

Testuinguru honetan, gero eta gehiago emaitzak lortzera bideratutako politika baten eskaria gero eta handiagoa da, eta ohar honek metodologiaren inguruko argitasuna eskatzen du. Halaber, diru-sarrera finantzarioak baino gehiago, herritarren aurrerakuntza eta ongizatea islatuko duten adierazle egokiak erabiltzea aholkatzen du.

Oharrak segimendu eta ebaluazio sistemaren logika sinplifikatua eta berrikusia proposatzen du 2013. urtetik aurrera, eta Europa 2020 estrategiaren helburuei lotutako emaitzen adierazleen adibide praktikoak jasotzen ditu.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/evaluation/doc/performance/outcome\\_indicators\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/doc/performance/outcome_indicators_en.pdf)

### > Administrazio digitala Gipuzkoako udaletan, EGEFek lagunduta

Estrategia Empresarial aldizkariak udal gipuzkoarretan administrazio digitala garatu dadin laguntzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituen jarduerak jasotzen ditu (e-udalak programa).

Jarduera horiek 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen erkidegoaren baterako finantzaketaren laguntzaz egin dira.

*Informazio gehiago:*

[http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/EE%20-%20eudalak\\_%201-7-2011.pdf](http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/EE%20-%20eudalak_%201-7-2011.pdf)





### > Eskualdeak, aldaketa ekonomikoaren jokalaria

«Eskualdeak, aldaketa ekonomikoaren jokalaria: hiri eta eskualdeen hazkunde adimenduna eta jasangarria sustatzea» urteroko konferentzia egin zen Bruselan ekainaren 23an eta 24an.

Aurtengo konferentziaren ardatzak, hiri eta eskualde adimendunak eta jasangarriak sustatzeko sare eta tresna eskuragarrien analisia eta eskualdeko politikak ekonomiaren modernizazioari eta Europa 2020 estrategiaren helburuei egiten dien ekarpen garrantzitsua erakusten duten proiektu eta ekimen bikainak ezagutzea izan dira.

*Informazio gehiago:*

#### **Ondorioak eta aurkezpenak**

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/conferences/smart\\_sustainable/programme\\_en.cfm?nmenu=4](http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/smart_sustainable/programme_en.cfm?nmenu=4)

### > Europar Batasunaren estrategia Danubio eskualderako

Europar Batasunak Danubio eskualdeari begira duen estrategia: EBren azaleraren bosten bati eta 100 milioi baino biztanle gehiagori eragiten dieten erronkei erantzun bateratu bat.

Estrategiak eskualdearen erronkei aurre egingo dieten neurri jasangarri eta kooperatiboak ezartzeko jarduera-esparrua ahalbidetzen du eta strategiaren lau lehentasun edo oinarritan egituratzen da: eskualdearen konexioa; ingurumenaren babesa; oparotasunaren sustapena eta Danubio eskualdea indartzea.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag37/mag37\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag37/mag37_es.pdf)



### e-LIBURUTEGIA

#### > Foru Aldundiaren urteko txostena

2009 ekitaldiari dagokion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Urteko Txostenaren xedea Ogasun eta Finantza Departamentuak garatutako zerga- eta finantza-jardueren laburpena zergadunen, gizarte eragileen, eta oro har, gaian interesa duen ororen eskura jartzea da.

Lehen atalean zergen analisia egiten da: PFEZ, Pertsona Fisikoen Ondarea, Sozietateak, Sozietateen Zerga-pizgarriak eta BEZ.

Bigarren atala finantza- eta zerga-jarduerari buruzkoa da: Ogasun-organoen Kudeaketa, zerga itunduen bilketa eta foru jarduera ekonomiko-finantziarioa.

Eta, halaber, bi eranskin ditu: Udal estatistikak eta Xedapen arauemaileak.

*Informazio gehiago:*

[http://webwpub1.gipuzkoa.net/wps/PA\\_1\\_0\\_CH/HWEAbreDocServlet?GUID={4540D7D7-DE73-4A83-9683-25215ACDB0A6}](http://webwpub1.gipuzkoa.net/wps/PA_1_0_CH/HWEAbreDocServlet?GUID={4540D7D7-DE73-4A83-9683-25215ACDB0A6})



### > Udal hondakinen sorkuntza eta tratamendua

Europar udal hondakinen sorkuntza guztizko hondakinen % 10 inguruan kokatzen da; sorkuntza mantsotu eta egonkortu egin da, eta azken urteotan biztanle bakoitzeko 520 kg ingurukoa da.

Eurostaten argitalpenak udal hondakinen sorkuntzak eta tratatzeko moduek Batasuneko herrialdeetan 1995etik 2009ra izandako bilakaera jasotzen du.

Era berean, herrialde bakoitzean aberastasunen produkzioaren eta hondakinen produkzioaren eta tratamendu estrategien arteko banaketa aztertzen du.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-SF-11-031/EN/KS-SF-11-031-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-11-031/EN/KS-SF-11-031-EN.PDF)

### > Europako industria-harremanak

Europako lan-harremanei buruzko txostena da, eta azken urteotan izandako bilakaera aztertzen du.

Honako hauek dira txostenaren zazpi kapituluak: Europako lan-harremanak, horien gainean lan-munduko ordezkarien itzaropenak eta krisiari emandako erantzunak, soldaten malguketa eta gutxieneko soldata, lan-harremanak eta karbono maila baxua duen ekonomiarantz igarotzea, elkarrizketa soziala eta Batasunari dagokion legeria.

Ekonomia-krisiak Europar Batasun osoko lan-harremanen eragileentzat eta erakundeentzat aurrekaririk ez duten erronkak ekarri dituela azpimarratzen du txostenak. Orokorrean, Europako lan-harremanek tentsiopean indartsuak direla erakutsi dute eta funtsezkoak izan dira atzeraldiaren ondorioak arintzeko, nahiz eta herrialde guztietan ez den neurri berean gertatu.

*Más información:*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=738&langId=es&pubId=5946&furtherPubs=yes>



### > Erkidegoaren berrikuntza-politiken sinergiak

Sinergia Aritu Taldearen (VII. Esparru-programari, Berrikuntza eta Lehiakortasunerako eta kohesio-politikarako Esparru-programari lotutakoak) txostenak berrikuntza-politika europarrak bateratzearen egokitasuna aztertzen du.

Europar Batasunak berrikuntzaren arloan dituen politikak zatituta daudela adierazten du eta ikerketaren eta berrikuntzaren nola kohesio-politiken koordinazioa Europa, nazio eta eskualde mailan (maila bakoitzean nola maila desberdinen artean) ez dela hoberena dio. Halaber, Europa 2020 strategiaren orientabideen arabera estrategia bateratuak finkatzea beharrezkoa dela nabarmendu dute egileek, eta era berean, administrazio-egitura koherente eta interaktibo baten gabezia.

*Informazio gehiago:*

[ftp://ftp.cordis.europa.eu/pub/ftp7/docs/seg-final\\_en.pdf](ftp://ftp.cordis.europa.eu/pub/ftp7/docs/seg-final_en.pdf)



## ADIERAZLEAK

### > Europa 2011ko kopuru nagusiak

Europar Batasunaren eta bere estatu kideen, zein herrialde hautagaien, Japonia eta Estatu Batuen, adierazle eta estatistika-datu nagusiak.

Argitalpenaren edukia hamahiru kapitulutan egituratzen da: ekonomia eta finantzak; biztanleria; osasuna; hezkuntza eta prestakuntza; lan-merkatua; bizi-baldintzak eta gizarte-babesa; industria, merkataritza eta zerbitzuak; nekazaritza, basogintza eta arrantza; nazioarteko merkataritza; garraioak; ingurumena; energia eta zientzia eta teknologia.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-EI-11-001/EN/KS-EI-11-001-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-EI-11-001/EN/KS-EI-11-001-EN.PDF)

### > Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna Gipuzkoan eta Europar Batasunean

Ogasun eta Finantza Departamentuak landutako dokumentuak Gipuzkoako eta Europar Batasuneko berdintasun adierazle nagusiak aztertzen ditu, lau arlotan: errentak, erabakitze esparruak, prestakuntza eta enplegua.

Benchmarking-eko 15 adierazleek Gipuzkoan eta Europar Batasunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egoera antzekoa dela adierazten dute.

Gaingiroki, Gipuzkoako egoeran desberdintasun txikia dagoela jasotzen dute lau adierazlek, zortzik antzekoa dela eta hiruk desberdintasun handiagoa dagoela. Horri lotuta, Gipuzkoan emakumeen errentak gizonaenak baino askoz ere baxuagoak direla azpimarratu behar da; Europar Batasunari dagokion informazioa ez dago eskuragarri.

*Informazio gehiago:*

[http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/notas/2011-06\\_Iruzkina.pdf](http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/notas/2011-06_Iruzkina.pdf)